

DIRU SARRERAK

A.O.I.A. taldea

IDEIA: Energia generatzen duen kirol-makina

Gure makinak arlo ezberdinetan erabili ahal izango dira. Batetik, pertsona indibidualek erosteko aukera izango dute, etxean erabiltzeko edo berak nahi duenerako. Bestetik, kirol zentroak ere erosiko dituzte makina hauek, kantitate gehiagotan, ahalik eta bezero gehienek erabiltzeko. Kirol-zentroko makinak erabiltzen dituzten bezeroek, ez dute produktua bere horretan ordainduko, zentruak berak erosiko ditu eta. Hala ere, bezeroek zentruko instalakuntzak erabiltzeko ordainduko dute.

Bestalde, makina mota ezberdinak sortuko ditugunez, bakoitzaren prezioa ere aldatu egingo da batetik bestera. Esaterako, bizikleta makinen prezioa, makinaren kostua kontuan hartuta eta baita energia-generadorea ere 450€koa izango da. Horretaz gain, korri egiteko zintak ere sortuko ditugu eta hauen prezioa handiagoa izango da, 550€koa hain zuzen ere.

Makinak saltzeko web-gune bat irekiko dugu, une horo pertsonak gure produktuak ikusi ahal izateko. Web-guneaz gain, denda bat ere irekiko dugu, jendeak pertsonan ikusteko kirol-makina hauek; hauek probatzeko aukera ere eman nahi zaie aukeraketa egin baino lehen.